



ESTADISTIKA
ORGANO

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

EAE-KO HIGIEZINEN MERKATUAREN DINAMIKA ETA PERSPEKTIBA

2017ko 3. hiruhilekoa

Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta.

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa*



1.- ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN DINAMIKA

EAEEn, higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizea zertxobait okertu da; Araban bakarrik hobetu da

2017ko bigarren hiruhilekoaren eta hirugarren hiruhilekoaren artean¹, higiezinaren merkatuaren dinamismo-indize orokorra pixka bat okertu da etxebizitzaren merkatuan, 44,0 puntura iritsiz (2017ko bigarren hiruhilekoan erregistratu ziren 47,4 puntuak baino 3,4 puntu gutxiago).

2007tik, higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizea azken lau hiruhilekoetan bakarrik jarri da 44 puntuen gainetik. 2017ko hirugarren hiruhilekoaren zifra (44,0 puntu) aurreko hiruhilekoetako zifren azpitik badago ere (2016ko laugarren hiruhilekoan, 47,1 puntu; 2017ko lehenengo hiruhilekoan, 47,8 puntu; 2017ko bigarren hiruhilekoan, 47,4 puntu), azken hamar urteetako gehieneko balioen artean dago. 42 puntutik gorako zifrak aurkitzeko, 2004ra eta 2005era egin behar dugu atzera (41,9 eta 42,1 puntu 2004ko eta 2005eko laugarren hiruhilekoan, hurrenez hurren).

2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean dinamismo-indizeak duen beheranzko joerak **Gipuzkoa** eta **Bizkaia** ezaugarritzen ditu. Gipuzkoan, 1,1 puntu murriztu da (46,9 puntu zituen 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 45,8 puntu oraingoan). Bizkaian Gipuzkoan baino murrizketa handiagoa gertatu da, 6,8 puntutan jaitsi baita (46,7 puntu 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 39,9 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan). **Araban**, ordea, 2,7 puntutan igo da (49,0 puntu 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 51,7 puntu azken hiruhilekoan).

Urte arteko azterketa eginez gero, EAEko lurralde guztietan ikusten da gehikuntza, baina aldeak daude. Araban, 14,7 puntu berreskuratu dira, 2016ko hirugarren hiruhilekoan 37,0 puntu edukitzetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan 51,7 puntu edukitzera igaro baita. Bizkaia 7,0 puntu berreskuratu ditu aldi berean, 2016ko hirugarren hiruhilekoan 32,9 puntu edukitzetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan 39,9 puntu edukitzera igaro baita. Gipuzkoa tartean dago, dinamismo-indizea 2016ko hirugarren hiruhilekoan 37,2 puntukoa izatetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan 45,8 puntukoa izatera igaro baita (+8,6 puntu).

Sustatzaileen nahiz higiezinaren jabetzako agenteen artean, higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizeak okerrera egin du

2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, sustatzaileen nahiz higiezinaren jabetzako agenteen artean egin du behera merkatuaren dinamismo-indizeak. **Higiezinaren jabetzako agentei** dagokienez, dinamismoak 4,5 puntutan egin du behera azken hiruhilekoan, 2017ko bigarren hiruhilekoan 49,0 puntu edukitzetik oraingo hiruhilekoan 44,5 puntu edukitzera igaro baita. **Sustatzaileei** dagokienez, berriz, 2,3 puntutan

¹ Dinamismo-indizeak higiezinaren merkatuaren dinamismo-maila 0tik 100era bitarteko eskalan jartzen du. Sektoreko eragileen (sustatzaileak eta higiezinaren jabetzako agenteak) banakako iritziei dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, oso hedakorra; 75, hedakor samarra; 50, normala; 25 gelditu samarra; eta 0, oso geldituta.

murriztu da dinamismo-indizea: 45,8 puntu zituen 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 43,5 puntu oraingoan. Hiruhileko honetan higiezinaren jabetzako agenteek jaitsiera handiagoa eduki duten arren, sustatzaileen dinamismo-indizeak baino balio handiagoak ematen ditu (44,5 puntu higiezinaren jabetzako agenteek, eta 43,5 puntu sustatzaileek).

Urte arteko ikuspegian, nabarmen hobetu da higiezinaren jabetzako agenteen eta sustatzaileen egoera: higiezinaren jabetzako agenteak (+5,6 puntu) 2016ko hirugarren hiruhilekoan 38,9 puntu edukizetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan 44,5 puntu edukizera igaro dira, eta sustatzaileek 11,5 puntutan egin dute gora, 2016ko hirugarren hiruhilekoan 32,0 puntu edukizetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan 43,5 puntu edukizera igaro baitira.

1. taula. Higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizeak lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017

Dinamismo-indizea	EAE	Lurralde historikoa			Establezimendu mota	
Urtea		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Higiezinaren jabetzako agenteak	Erakunde sustatzaileak
2004ko IV. hiruhilekoa	41,9	35,3	42,4	44,5	-	-
2005eko IV. hiruhilekoa	42,1	32,5	43,0	46,5	38,4	45,8
2006ko IV. hiruhilekoa	30,5	17,6	29,0	39,0	29,2	31,7
2007ko IV. hiruhilekoa	14,6	2,1	17,1	18,5	14,0	15,1
2008ko IV. hiruhilekoa	6,1	0,7	8,8	4,9	7,4	4,8
2009ko IV. hiruhilekoa	20,6	28,7	18,6	20,6	24,8	16,5
2010eko IV. hiruhilekoa	14,6	3,0	16,1	16,3	17,2	12,0
2011ko IV. hiruhilekoa	9,5	6,8	12,6	6,6	11,1	7,9
2012ko IV. hiruhilekoa	6,9	0,4	7,9	7,4	8,3	5,5
2013ko IV. hiruhilekoa	11,9	13,2	12,9	9,7	15,5	8,3
2014ko IV. hiruhilekoa	26,6	21,1	26,1	27,7	31,8	21,3
2015eko IV. hiruhilekoa	34,3	34,6	30,5	37,5	34,9	33,8
2016ko I. hiruhilekoa	41,0	41,5	37,3	44,1	40,7	41,2
2016ko II. hiruhilekoa	38,9	32,0	36,4	42,3	40,9	37,0
2016ko III. hiruhilekoa	35,5	37,0	32,9	37,2	38,9	32,0
2016ko IV. hiruhilekoa	47,1	47,0	44,1	49,7	49,5	44,6
2017ko I. hiruhilekoa.	47,8	45,2	43,9	51,4	55,0	40,5
2017ko II. hiruhilekoa	47,4	49,0	46,7	46,9	49,0	45,8
2017ko III. hiruhilekoa	44,0	51,7	39,9	45,8	44,5	43,5

Dinamismo-indizeak 0 (geldialdi handiena) eta 100 (dinamismo handiena) balioen artean daude.

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.

Salmenten bilakaera-indizeak behera egin du lurralde historiko guztietan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

2017ko hirugarren hiruhilekoan, **salmenten bilakaera-indizeak** atzera egin du EAEko higiezinaren merkatuan². EAEko indize orokorra 13,1 puntutan murriztu da (56,6 puntu

² Salmenten bilakaera-indizeak higiezinaren merkatuko salmenten dinamika jartzen du Otik 100era bitarteko eskalan. Sektoreko eragileen (sustatzaileak eta higiezinaren jabetzako agenteak) banakako iritziei



zituen 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 43,5 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan). Urterik urte begiratuta, ordea, dinamika positiboa da. Urte arteko azterketa eginez gero, indizean 0,6 puntu berreskuratu direla ikus daiteke, 2016ko hirugarren hiruhilekoko 42,8 puntuekin alderatuz gero (43,5 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan).

Salmenten bilakaera-indizeak nabarmen egin du atzera bai **Gipuzkoa**, bai **Bizkaian** (-13,8 puntu bietan). Gipuzkoa 2017ko bigarren hiruhilekoan 56,4 puntu edukizetik 2017 hirugarren hiruhilekoan 42,6 puntu edukitzera igaro da (-13,8 puntu). **Bizkaian** antzeko jaitsiera egon da: 13,8 puntutan jaitsi da, 2017ko bigarren hiruhilekoan 55,1 puntu edukizetik 2017 hirugarren hiruhilekoan 41,2 puntu edukitzera igaro baita. **Arabian**, 9,3 puntutan jaitsi da balioa, 2017ko bigarren hiruhilekoan 64,6 puntu edukizetik oraingo hiruhilekoan 55,4 puntu edukitzera igaro baita.

2. taula. Salmenten bilakaera-indizea, aurreko hiruhilekoarekin erkatuta, lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017

Salmenten bilakaera-indizea	EAE	Lurralde historikoa			Establezimendu mota	
Urtea		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Higiezin jabetzako agenteak	Erakunde sustatzaileak
2004ko IV. hiruhilekoa	53,4	56,3	53,7	52,2	-	-
2005eko IV. hiruhilekoa	51,8	55,0	51,7	51,2	45,6	57,9
2006ko IV. hiruhilekoa	42,7	45,2	47,1	35,9	36,4	49,0
2007ko IV. hiruhilekoa	30,0	22,9	29,1	34,3	28,4	31,6
2008ko IV. hiruhilekoa	34,3	25,1	31,9	40,2	32,8	35,7
2009ko IV. hiruhilekoa	58,2	57,5	56,6	59,2	59,7	56,8
2010eko IV. hiruhilekoa	45,0	64,4	38,3	45,2	44,4	45,6
2011ko IV. hiruhilekoa	43,4	57,9	46,1	35,8	38,6	48,2
2012ko IV. hiruhilekoa	43,9	54,2	36,1	50,1	36,5	51,4
2013ko IV. hiruhilekoa	43,5	55,8	36,9	48,3	43,9	43,1
2014ko IV. hiruhilekoa	59,7	64,7	54,9	61,3	57,4	61,9
2015eko IV. hiruhilekoa	61,4	64,5	59,2	63,6	61,9	60,9
2016ko I. hiruhilekoa	52,4	44,5	52,6	54,3	45,9	58,8
2016ko II. hiruhilekoa	51,4	41,2	52,4	53,1	48,5	54,3
2016ko III. hiruhilekoa	42,8	50,0	41,6	43,8	36,1	49,6
2016ko IV. hiruhilekoa	63,9	60,1	59,2	69,6	63,6	64,2
2017ko I. hiruhilekoa.	59,4	59,5	58,1	60,9	58,6	60,2
2017ko II. hiruhilekoa	56,6	64,6	55,1	56,4	55,2	58,0
2017ko III. hiruhilekoa	43,5	55,4	41,2	42,6	38,7	48,2

Salmenten bilakaera-indizea Otik (salmentak okerragotze orokorra) 100era (hobekuntza orokorra) bitartean dago.

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritzak.

Urte arteari begiratuta, Araban hobetu da salmenten bilakaera-indizea, 5,4 puntu berreskuratu baitira 2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (50,0 puntu 2016ko hirugarren hiruhilekoan, eta 55,4 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan). Bizkaian, jaitsiera oso txikia izan da: -0,4 puntu (41,6 puntu 2016ko hirugarren hiruhilekoan, eta

dagozkien erantzunen batez bestekoa erakusten du, honako eskala honen arabera: 100, oso hedakorra; 75, hedakor samarra; 50, normala; 25 gelditu samarra; eta 0, oso geldituta.



41,2 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan). Gipuzkoan, azkenik, 1,2 puntutan egin du atzera indizeak (43,8 puntu 2016ko hirugarren hiruhilekoan, eta 42,6 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan).

Agente motaren arabera, **higiezin jabetzako agenteek**, zeintzuek erabilitako etxebizitza saltzen duten batez ere, jaitsiera handiagoa eduki dute azken hiruhilekoan. Higiezin jabetzako agenteen salmenten bilakaera-indizea 2017ko bigarren hiruhilekoan 55,2 izan zen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 38,7 (-16,5 puntu). **Sustatzaileen** indizeak, berriz, 9,8 puntutan egin du atzera (2017ko bigarren hiruhilekoan 58,0 puntu edukizetik 2017 hirugarren hiruhilekoan 48,2 puntu edukitzera igaro da).

Urte arteko bilakaerak, ordea, 2016ko eta 2017ko hirugarren hiruhilekoei dagokienez, emaitza hobeak izan ditu higiezin jabetzako agenteen artean. Indizea 2,6 puntutan hobetu da (36,1 puntu zituen 2016ko hirugarren hiruhilekoan, eta 38,7 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan). Sustatzaileek 1,4 puntuko jaitsiera eduki dute berriro, indizea 49,6 puntutik 48,2 puntura igaro baita aldi horretan.

Erabilitako etxebizitza saltzeko behar den batez besteko denbora egonkortu da

Merkatuaren dinamismoa ezegonkorra izan arren, azken hiru hilabeteetan egonkortu egin da **salmentarako behar den batez besteko denbora**. Horrela, bada, 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, erabilitako etxebizitzak saltzeko behar den batez besteko denbora ez da aldatu: 4,7 hilabetetan dago bi aldietan.

3. taula. Higiezin jabetzako agenteek etxebizitza saltzeko eragiketa gauzatzeko behar duten batez besteko denboraren bilakaera. 2008-2017

Urtea	Batez besteko denbora (hilabeteak)
2008ko IV. hiruhilekoa (*)	8,5
2009ko IV. hiruhilekoa	8,6
2010eko IV. hiruhilekoa	9,2
2011ko IV. hiruhilekoa	8,7
2012ko IV. hiruhilekoa	11,0
2013ko IV. hiruhilekoa	10,0
2014ko IV. hiruhilekoa	7,4
2015eko IV. hiruhilekoa	4,6
2016ko I. hiruhilekoa	5,2
2016ko II. hiruhilekoa	4,6
2016ko III. hiruhilekoa	5,1
2016ko IV. hiruhilekoa	5,8
2017ko I. hiruhilekoa.	4,3
2017ko II. hiruhilekoa	4,7
2017ko III. hiruhilekoa	4,7

(*) 2008. urtetik aurreko datuak ez daude eskuragai

Iturria: Higiezin Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.




Urte arteari begiratzuz gero, ordea, salmentarako behar den denbora murriztu egin dela ikusiko dugu. 2016ko hirugarren hiruhilekoan, 5,1 hilabetekoa zen salmentarako behar den denbora (2017ko hirugarren hiruhilekoan baino 0,4 hilabete gehiago). Oraingo hiruhilekoko zifra handiagoa da 2017ko lehenengo hiruhilekoan (4,3 hilabete) jasotakoa baino, eta 2016ko bigarren hiruhilekoko zifraren (4,6 hilabete) eta 2015eko laugarren hiruhilekoko zifraren (4,6 hilabete) antzekoa da, baina 2008ko laugarren hiruhilekoan eta 2014ko laugarren hiruhilekoan jasotako zifrak baino txikiagoa da, 7,5 hilabete ingurukoak edo hortik gorakoak baitira horiek.

Azken hiruhilekoan, murriztu egin da etxebizitza berriak eta erabilitakoak saltzeko nahiz alokatzeko erritmoa, eta egonkortu egin da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Higiezinaren jabetzako agenteek eta sustatzaileek egindako salmenten hiruhilekoko erritmoa aztertuz gero, **etxebizitza berriei** dagokienez (libreak eta babestuak), 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean murriztu egin da salmenten erritmoa. Horrela, bada, 2017ko bigarren hiruhilekoan 6,8 etxebizitza saltzen ziren hiruhilekoan, eta, 2017ko hirugarren hiruhilekoan 4,7, hau da, duela urtebete jasotako zifraren (4,8) antzera.

Erabilitako etxebizitzet dagokienez, 2017ko hirugarren hiruhilekoan murriztu egin da salmenten erritmoa; izan ere, 2017ko bigarren hiruhilekoan, 5,1 etxebizitza saltzen ziren hiruhilekoan, eta, 2017ko hirugarren hiruhilekoan, 3,8. 2017ko hirugarren hiruhilekoko zifrak, ordea, 2016ko hiruhileko berean jaso zen balioa gainditzen du (2016ko hirugarren hiruhilekoan, 3,4 etxebizitza).

1. grafikoa. Etxebizitzen salmenten eta alokairuen erritmoa, hiruhilekoen arabera 2006-2017



Salmenten erritmoa: higiezinaren jabetzako agenteek eta erakundeek sustatzaileek saldatuko edo alokatutako etxebizitzetako batez besteko kopurua

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.



Alokairuaren eremuan, jaitsiera arinagoa izan da 2017ko hirugarren hiruhilekoan itxi diren kontratu-kopuruan (4,4 etxebizitza hiruhilekoan, eta 4,7 etxebizitza 2017ko bigarren hiruhilekoan). Horrela, aurreko hiruhilekoko zifrak gaitzen ez dituen arren (4,7 etxebizitza hiruhilekoan), 2016ko zifra altuenak gaitzen ditu (2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, 4,3 eta 4,2 etxebizitza hiruhilekoan, hurrenez hurren).

Hauek jarraitzen duten izaten merkatuaren egungo dinamikan positiboki gehien eragiten duten faktoreak: eskaintza eskariari egokitzea, etxebizitzaren prezioak, hipoteken kostuak eta kreditua eskuratzeko erraztasuna. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, nabarmen hobetu dira sektore honetan positiboki eragiten duten faktoreak; bereziki, hipotekaren kostuak. Egoera ekonomikoaren gaitzeko pertzepzioa, ordea, faktore negatiboa da berriro.

Aurreko ataletan kontuan hartu diren adierazleen azterketa osatzeko, **higiezin merkatuaren dinamikan eragiten duten faktoreei** buruzko informazioa ematen du Higiezin Eskaintzari buruzko inkestak, modu positiboan nahiz negatiboan eragiten dutenena. Etxebizitzaren merkaturaren ikusi den dinamikaren azpiko kausak mugatzea da hurbilketa horren xedea.

Horri dagokionez, hauex da 2017ko hirugarren hiruhilekoan atera den ondorio garrantzitsua: aurreko hiruhilekoko faktore positibo nagusiek hobetu egin dute beren eragin positiboa. Faktore negatiboek, aldiz, pixka bat areagotu dute beren eragin negatiboa.

Alderdi positiboenean, eskaintzaren ezaugarriak eskariari egokitzea da higiezin merkatuaren dinamikarako faktore positibo nagusia. 2017ko lehenengo hiruhilekoan erregistratu zen igoera handiaren ondoren (+95,5 puntu), etxebizitzaren prezioaren afera gaitzen zuen horrek, eta faktore nagusi izaten jarraitu du bai bigarren hiruhilekoan, bai hirugarren hiruhilekoan (92,3 puntu eta 96,1 puntu, hurrenez hurren). Eskaintza eskariari egokitzeko afera igo egin zen, 2016ko azken hiruhilekoan 44,1 puntukoa baitzen eta 2017ko lehenengo hiruhilekoan 95,5 puntukoa. Nahiz eta 2017ko bigarren hiruhilekoan pixka bat jaitsi (92,3 puntua), 2017ko hirugarren hiruhilekoan gehieneko balioa eskuratu zen berriro: 96,1 puntu (+3,7 puntu gehiago 2017ko bigarren hiruhilekoari dagokionez eta +0,6 puntu lehenengoari dagokionez).

Etxebizitzaren prezioak faktore positibo garrantzirik izaten jarraitzen du merkatuaren egoeran, eta 3,7 puntu berreskuratu ditu azken hiruhilekoan: 2017ko bigarren hiruhilekoan 91,2 puntu zituen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 94,9 puntu. Faktore horrek bigarren tokian egoten jarraitzen du, eta 2016-2017 aldiko gehieneko balioa eman du; alabaina, 2015eko laugarren hiruhilekoko 95,1 puntuen azpitik dago.

Hipoteken kostuak eta kreditua jasotzeko erraztasun/zailtasunak modu bereziki negatiboan eragiten zioten higiezin merkatuaren egoerari 2014. urtera arte. 2015etik aurrera, ordea, pertzepzioak nabarmen hobetu dira (50,9 eta 48,9 puntu, hurrenez hurren, 2015eko laugarren hiruhilekoan). Bi faktoreek nabarmen hobetu dute beren eragin positiboa 2017ko hirugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoarekin erkatuta), eta sektorean positiboki eragiten dutela berresten du horrek.

Hipoteken kostuei dagokienez, 61,7 puntu berreskuratu dira azken hiruhilekoan, 2017ko bigarren hiruhilekoan 28,4 puntukoa izatetik hirugarren hiruhilekoan 90,1 puntukoa izatera igaro baita. Oraingo indizeak sobera gaintitu ditu azken urteetan jaso diren zifrak, eta sektoreko hirugarren faktore positibo gisa berretsi da.

Kreditua jasotzeko erraztasun/zailtasunak hipoteken kostuaren antzera jarduten du, baina igoera arinagoarekin. 2017ko bigarren hiruhilekoan, +19,8 puntuko indize positiboa zuen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 46,4 puntukoa; hots, 2017ko bigarren hiruhilekoko zifrak baino 26,6 puntu gehiago. 2017ko hirugarren hiruhilekoko zifrak (+46,4 puntu) gaintitu egiten ditu 2016ko eta 2017ko hiruhileko guztietako zifrak, 19,8 eta 36,5 punturen artean ibili baitziren horiek. Alabaina, 2015ko laugarren hiruhilekoko 48,9 puntuen azpitik dago.

Egoera ekonomikoari dagokionez, 2017ko lehenengo hiruhilekora arte, higiezin merkatuan eragin txarrena zuen alderdia zen; 2017ko bigarren hiruhilekoan, berriz, polo positibora igaro zen (+10,1 puntu), baina, hirugarren hiruhilekoan, polo negatiboan kokatu zen berriro (-3,6 puntu). Faktore hori, 2017ko bigarren hiruhilekoarekin erkatuta egoera okertu duen arren (13,7 puntu galdu ditu), hobetu egin da 2008tik honako gainerako hiruhilekoekin alderatuz gero, -30 puntutik beherako zifrak baitauzkate horiek.

4. taula. Higiezin merkatuaren dinamikan eragiten duten faktoreak. 2008-2017

(Eragin positiboaren edo negatiboaren indizeak)

Faktoreak	IV. hiruhilekoa 2008 (*)	IV. hiruhilekoa 2009	IV. hiruhilekoa 2010	IV. hiruhilekoa 2011	IV. hiruhilekoa 2012	IV. hiruhilekoa 2013	IV. hiruhilekoa 2014	IV. hiruhilekoa 2015	I. hiruhilekoa 2016	II. hiruhilekoa 2016	III. hiruhilekoa 2016	IV. hiruhilekoa 2016	I. hiruhilekoa 2017	II. hiruhilekoa 2017	III. hiruhilekoa 2017
Hipoteken kostuak	-87,8	-14,2	-81,6	-89,3	-87,1	-76,9	-26,1	50,9	36,5	29,0	30,2	28,4	38,4	28,4	90,1
Kreditua eskuratzeko zailtasuna edo erraztasuna	-	-	-	-	-96,1	-95,1	-50,8	48,9	36,5	26,9	27,0	22,9	23,9	19,8	46,4
Egoera ekonomikoa	-93,4	-85,8	-96,1	-96,9	-97,3	-97,7	-78,2	-54,1	-72,4	-78,1	-82,5	-30,3	-31,9	10,1	-3,6
Etxebizitzaren prezioak	-80,9	-37,0	-61,9	-57,3	-33,9	-36,0	22,6	95,1	91,7	86,0	90,7	82,3	92,7	91,2	94,9
Etxebizitza erosteko laguntzak eta pizgarriak	-43,7	-20,0	-40,3	-18,0	-35,8	-64,9	-61,5	-0,5	-43,2	-91,7	-18,5	-1,7	0,7	-0,6	-3,0
Eraikuntzarako laguntzak eta pizgarriak	-39,9	-23,3	-41,7	-20,4	-38,7	-65,4	-64,3	-0,1	-44,3	-46,0	-18,5	-2,4	-0,3	-0,2	-3,3
Lurzoruen erabilgarritasuna	-36,7	-39,2	-59,2	-42,0	-46,3	-40,7	-22,6	-11,1	-21,7	-17,6	-20,1	-21,4	-23,0	-12,3	-9,4
Lurzoruaren prezioak	-59,6	-50,7	-62,9	-52,8	-47,1	-45,9	-28,1	-11,2	-21,7	35,5	-20,1	-22,3	-22,1	-11,6	-8,5
Eskaintzaren ezaugarriak eskariari egokitzea	-50,4	-13,6	-38,7	-58,3	-44,0	-20,5	21,8	61,6	51,6	44,3	62,6	44,1	95,5	92,3	96,1

Indizeak -100 (eragin negatibo handiena) eta 100 (eragin positibo handiena)

Iturria: Higiezin Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.

Egoera ekonomikoarekin batera, lurzoruaren eskuragarritasuna (-9,4 puntu) eta lurzoruaren prezioa (-8,5 puntu) nabarmentzen dira 2017ko hirugarren hiruhilekoko higiezin merkatuan, beren eragin negatiboa dela-eta. Faktore negatibo nagusiak diren arren, nabarmen hobetu dute beren egoera, aurreko hiruhilekoarekin erkatuta. Lurzoruaren eskuragarritasunean (-9,4 puntu), 3,0 puntuko hobekuntza egin da indizean, 2017ko bigarren hiruhilekoarekin (-12,3 puntu) alderatuta; lurzoruaren prezioari



dagokionez (-8,5 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan), 3,4 puntutan egin du hobera, 2017ko bigarren hiruhilekoarekin (-11,6 puntu) alderatuta.

Beste alde batetik, beren eragin negatiboa pixka bat areagotu dute etxebizitza erosteko laguntzek nahiz pizgarriek (-3,0 puntu) eta eraikuntzarako laguntzek eta pizgarriek (-3,3 puntu), 2017ko bigarren hiruhilekoan zerotik oso hurbil egotetik 2017ko hirugarren hiruhilekoan -3 puntuko balioetara igaro baitira. Aurreko hiru hiruhilekoen aldean okerrera egin dute, pixka bat, faktore horiek, baina hobekuntza nabarmena egin dute 2016ko lehenengo hiru hiruhilekoekin konparatuz gero, eragin negatibo handiagoa baitzuten 2016an.

Etxebizitza erosteko laguntzei eta pizgarriei dagokienez, egungo adierazlea (-3,0 puntu) 2,4 puntutan jaitsi da 2017ko bigarren hiruhilekoarekin (-0,6 puntu) erkatuta, baina hobekuntza handia egin da 2016ko bigarren (-91,7 puntu) eta hirugarren (-18,5 puntu) hiruhilekoekin alderatuz gero.

Antzeko dinamika ikus daiteke eraikuntzarako laguntzetan eta pizgarrietan (-3,3 puntu 2017ko hirugarren hiruhilekoan), 3,1 puntutan egin baitu okerrera 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (-0,2 puntu). Okerrera egin du, 2015eko bigarren erdian (-0,3 eta -0,1 puntu 2015eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren) eta 2017ko hasieran (-0,3 eta 0,2 puntu lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren) erregistratu ziren zifra ia ezdeusekin alderatuta. Hala ere, 2016ko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetako zifrak (-44tik beherakoak) eta 2016ko hirugarren hiruhilekoko zifra (-18,5) hobetzen ditu.

2.- ETXEBIZITZA-MERKATUARI BURUZKO IKUSPEGIAK

Lurralde historiko guztietan, nabarmen hobetu dira salmenten aurreikuspen-indizeak; Bizkaian eta higiezin jabetzako agenteen artean, batez ere.

2017ko hirugarren hiruhilekoan, **salmenten bilakaeraren aurreikuspen-indizean** hobekuntza egin delako perspektiba orokortua egiaztatu da. Oro har hartuta, salmenten aurreikuspen orokorraren indizea 2017ko bigarren hiruhilekoan 42,1 izan zen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 79,5 (+37,4 puntu). Azken hiruhilekoan erregistratu den balioak gainditu egiten du 2016ko hiruhilekoetan eta 2017ko aurreko hiruhilekoetan jasotako zifra (42,1 puntuko gutxieneko balioa 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta 76,5 puntuko gehieneko balioa 2016ko hirugarren hiruhilekoan).

2017ko hirugarren hiruhilekoan, eragile guztiek berreskuratu dituzte aurreikuspenak, baina pixka bat gehiago higiezin jabetzako agenteek. Higiezin jabetzako agenteen salmenta-aurreikuspen indizea 2017ko bigarren hiruhilekoan 33,3 puntukoa izan zen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 79,1 puntukoa (+45,8 puntu). Era berean, sustatzaileen artean hobekuntza gertatu dela ikus daiteke: 2017ko bigarren hiruhilekoan, 50,9 puntu zituen indizeak; 2017ko hirugarren hiruhilekoan, berriz, 79,9 puntu (+29,0 puntu).

Oro har, hiru lurralde historikoetan hobetu da 2017ko hirugarren hiruhilekoko salmenten aurreikuspenaren perspektiba. 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, guztietan ikusi da gorakada nabarmena, 25 puntutik gorakoa; hala ere, aldeak ikus daitezke lurralde historikoaren arabera.

2017ko hirugarren hiruhilekoan, indizea intentsitate handiagoz suspertu da Bizkaian: 48,6 puntutan igo da (2017ko bigarren hiruhilekoan, 33,3 puntu zituen, eta, 2017ko hirugarren hiruhilekoan, 81,8 puntu). Araban, igoera 25,8 puntukoa izan da (2017ko bigarren hiruhilekoan 45,0 puntu edukizetik 2017 hirugarren hiruhilekoan 70,8 puntu edukitzera igaro da). Gipuzkoa 2017ko bigarren hiruhilekoan 51,1 puntu edukizetik 2017 hirugarren hiruhilekoan 78,4 puntu edukitzera igaro da (+27,3 puntu).

5. taula. Salmenta-aurreikuspenaren indizearen bilakaera, lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017

Urtea	EAE	Lurralde historikoa			Establezimendu mota	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Higiezin jabetzako agenteak	Erakunde sustatzaileak
2004ko IV. hiruhilekoa	67,4	-	-	-	74,3	60,4
2005eko IV. hiruhilekoa	58,6	79,6	58,0	56,7	57,9	59,2
2006ko IV. hiruhilekoa	72,1	74,3	82,2	58,1	67,8	76,4
2007ko IV. hiruhilekoa	49,2	15,6	61,1	45,7	46,7	51,6
2008ko IV. hiruhilekoa	38,0	25,9	36,7	43,2	41,2	34,8
2009ko IV. hiruhilekoa	62,5	60,8	64,2	61,4	64,0	60,9
2010eko IV. hiruhilekoa	46,9	45,0	44,7	50,1	48,6	45,1
2011ko IV. hiruhilekoa	49,0	54,0	45,1	49,7	52,9	45,2
2012ko IV. hiruhilekoa	33,9	34,1	33,0	37,6	39,9	27,9
2013ko IV. hiruhilekoa	46,8	45,4	47,0	47,1	47,4	46,2
2014ko IV. hiruhilekoa	62,9	56,4	64,9	62,1	61,5	64,3
2015eko IV. hiruhilekoa	63,2	52,6	65,5	62,6	60,8	65,6
2016ko I. hiruhilekoa	68,3	69,4	68,7	67,3	72,4	64,1
2016ko II. hiruhilekoa	47,4	44,6	42,8	53,5	38,5	56,3
2016ko III. hiruhilekoa	76,5	74,2	77,8	74,7	82,2	70,7
2016ko IV. hiruhilekoa	57,3	44,6	60,0	56,9	58,1	56,5
2017ko I. hiruhilekoa.	69,2	61,2	71,1	69,0	70,7	67,7
2017ko II. hiruhilekoa	42,1	45,0	33,3	51,1	33,3	50,9
2017ko III. hiruhilekoa	79,5	70,8	81,8	78,4	79,1	79,9

Salmenta-aurreikuspenaren indizea 0tik (salmenten okerragotze orokorra) 100era (hobekuntza orokorra) bitartean dago.

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.

Aldaketa horiekin, murriztu egin da hiru lurraldeen artean salmenta-aurreikuspenaren indizeetan dagoen aldea. Arabak dauka salmenta-aurreikuspenaren indize txikiena (70,8 puntu); Gipuzkoa tartean dago (78,4 puntu), eta Bizkaia (81,8 puntu), aldiz, Arabak baino 11 puntu gehiago dauka, eta Gipuzkoak baino 3,4 puntu gehiago.

2016ko hiruhileko berarekin alderatuz gero, igoerak ez dira hain nabarmenak Bizkaian eta Gipuzkoan; Araban, ordea, okerrera egin du pixka bat, 2016ko hirugarren



hiruhilekoan 74,2 puntu baitzituen indizeak, eta 70,8 puntu 2017ko hirugarrenean (-3,3 puntu). Beste lurraldeek pixka bat hobetu dituzte beren emaitzak: Bizkaian, +4,0 puntuko aldaketa egon da (81,8 puntu 2017ko hirugarrenean, eta 77,8 puntu 2016ko hirugarrenean), eta, Gipuzkoan, +3,7 puntukoa (78,4 puntu 2017ko hirugarrenean, eta 74,7 puntu 2016ko hirugarrenean).

Arabako indizean jaitsiera egon den arren, ez da ikusten epe laburrean aldaketa nabarmenik egongo denik EAEko etxebizitza berrien zein etxebizitza erabilien prezioan, prezioen bilakaeran joera-aldaketa handia gertatuko dela esateko moduan.

Prezioen bilakaera-aurreikuspenaren indizea 1,3 puntutan igo da 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean (52,4 eta 53,7 puntu, hurrenez hurren). Era berean adierazi behar da 2017ko hirugarren hiruhilekoko zifrak 2 eta 4 punturen artean gainditzen dituela 2015eko eta 2016ko hiruhilekoetan jasotako zifrak (aldi horretan, 2016ko laugarren hiruhilekoan egon zen gehieneko zifra, 50,2 puntukoa), eta puntu leian gainditzen ditu 2017ko aurreko hiruhilekoko zifrak.

Oro har, ez dago prezioen goranzko susperraldia nabarmena izango dela aurreratzea ahalbidetzen duen elementurik, gaurko balioak 2007a baino lehen erregistratutako balioen (60 puntutik gorakoak) oso azpitik baitaude oraindik.

Lurraldeei begiratuz gero, prezioen bilakaera-indizearen bilakaerak, oro har, Gipuzkoan goranzko joera arina dagoela baieztatzen du, eta joera hori are arinagoa dela Bizkaian. Araban, berriz, atzera ari da egiten. Horrela, bada, Arabak 2017ko bigarren hiruhilekoan 54,0 puntuko indize positiboa zuen, eta 2017ko hirugarren hiruhilekoan 49,2 puntukoa (-4,8 puntu), 2016ko hirugarren hiruhilekoan (50,1 puntu) baino 0,9 puntu gutxiago. Gipuzkoan, intentsitate handiagoko igoera aurreikusten da; azken hiruhilekoan, 3,2 puntutan igo da indizea (54,3 eta 57,5 puntu 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren). 2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (50,0 puntu), intentsitate handiagoko igoera egiaztatu da (+7,5 puntu). Bizkaian, hazkuntza txikiagoa ikusi da, 51,4 puntu baititu orain, eta 50,6 puntu baitzituen 2017ko bigarren hiruhilekoan (+0,8 puntu). Gipuzkoan bezalaxe, indizeak intentsitate handiagoz egin du hobera (+4,4 puntu), 2016ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (51,4 puntu orain, eta 47,0 puntu 2016ko hirugarren hiruhilekoan).

Higiezin merkatuko agenteei begiratuta, perspektibak positiboagoak dira higiezin jabetzako agenteen artean sustatzaileen artean baino. Hala, 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, prezioen bilakaeraren aurreikuspen-indizea pixka bat igo da higiezin jabetzako agenteen artean (+1,8 puntutan, 50,9 puntu edukitzetik 52,7 puntu edukitzera igaro baita 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean). Sustatzaileen artean, igoera arinagoa da: +0,7 puntukoa, 54,0 puntu edukitzetik 54,7 puntu edukitzera igaro baita 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean.

Urte arteko bilakaera aztertuz gero, hobekuntza handiagoa ikusten da bi establezimendu motetan. Higiezin jabetzako agenteei dagokienez, 2016ko hirugarren hiruhilekoan 47,2 puntu erregistratu ziren, 2017ko hirugarren hiruhilekoan (52,7 puntu) baino 5,5 puntu gutxiago. Sustatzaileei dagokienez, berriz, 4,9 puntu berreskuratu dira azken



urtean, 2016ko hirugarren hiruhilekoan 49,8 puntu baitzituzten, eta oraingo hiruhilekoan 54,7 puntu.

6. taula. Prezioen bilakaera hurrengo urterako aurreikusteko indizea, lurralde historikoen eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017

Urtea	EAE	Lurralde historikoa			Establezimendu mota	
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Higiezin jabetzako agenteak	Erakunde sustatzaileak
2004ko IV. hiruhilekoa	83,0	-	-	-	77,2	88,8
2005eko IV. hiruhilekoa	77,7	93,9	81,2	65,8	73,2	82,2
2006ko IV. hiruhilekoa	64,9	88,1	57,3	65,8	64,8	64,9
2007ko IV. hiruhilekoa	35,2	35,2	34,8	36,4	29,4	41,0
2008ko IV. hiruhilekoa	32,8	35,4	32,1	32,7	28,2	37,4
2009ko IV. hiruhilekoa	40,0	41,7	38,8	41,6	35,9	44,1
2010eko IV. hiruhilekoa	40,3	45,3	40,0	39,2	39,6	41,1
2011ko IV. hiruhilekoa	33,5	45,7	34,1	30,7	29,7	37,3
2012ko IV. hiruhilekoa	30,5	45,2	30,3	26,1	23,9	37,2
2013ko IV. hiruhilekoa	34,0	35,1	34,4	33,1	31,6	36,4
2014ko IV. hiruhilekoa	39,7	41,7	40,0	39,4	35,9	43,5
2015eko IV. hiruhilekoa	46,3	46,4	45,1	47,6	42,6	50,0
2016ko I. hiruhilekoa	46,3	48,2	45,1	47,3	43,2	49,4
2016ko II. hiruhilekoa	47,2	48,3	46,6	48,3	45,7	48,6
2016ko III. hiruhilekoa	48,5	50,1	47,0	50,0	47,2	49,8
2016ko IV. hiruhilekoa	50,2	52,8	48,9	51,6	48,0	52,4
2017ko I. hiruhilekoa.	52,7	49,2	50,5	56,1	50,6	54,9
2017ko II. hiruhilekoa	52,4	54,0	50,6	54,3	50,9	54,0
2017ko III. hiruhilekoa	53,7	49,2	51,4	57,5	52,7	54,7

Prezioen bilakaera aurreikusteko indizea 0tik (prezioen beherakada orokorra) 100era (prezioen gorakada orokorra) bitartean dago.

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.

Edonola ere, higiezinaren jabetzako agenteen eta sustatzaileen indizean ikusi diren igoera oraindik neurritsuek ez dute ahalbidetzen prezioen susperraldiranzko mugimendu argirik aurreratzea. Zentzu horretan, indizeen maila oso hurbil dago 50-55 puntuko atalasetik, 2004tik 2006ra erregistratu ziren 65 puntu inguruko edo hortik gorako zifretatik oso urrun.

Sustapen berriak hasiko direlako aurreikuspena egonkortu egin da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina hobetu egin da aurreko urtearekin erkatuta.

Azkenik, nabarmendu beharra dago 2017ko hirugarren hiruhilekoan egonkortu egin dela merkatura etxebizitza berriak eramatea aurreikusten duten sustatzaileen ehunekoa.

Sustapen berriak abiarazteko aurreikuspena % 8,0an zegoen 2017ko bigarren hiruhilekoan, eta % 7,9an 2017ko hirugarren hiruhilekoan (-% 0,1). Azken hiruhilekoan egonkortu egin bada ere, ehunekotan 0,5 puntutan egin du hobera, iazko hiruhileko berarekin konparatuz gero (% 7,4 2016ko hirugarren hiruhilekoan). Dena dela, zifra hori



askoz ere txikiagoa da 2014ko amaieratik 2015era eta are 2016ko bigarren hiruhilekora bitartean ikusi diren mailak baino (2016ko bigarren hiruhilekoan, % 9,4; beraz, ehunekoetan 1,4 puntutan egin da behera).

7. taula. Datorren hiruhilekoan etxebizitza-sustapen berrien eskaintzak abiaraziko direlako aurreikuspena. 2008-2017

(baietz erantzun duten sustatzaileen %)

Sustapen berriak hasteko aurreikuspena	EAE
Hiruhilekoa	Orotara
2008ko IV. hiruhilekoa (*)	4,8
2009ko IV. hiruhilekoa	18,9
2010eko IV. hiruhilekoa	9,7
2011ko IV. hiruhilekoa	5,8
2012ko IV. hiruhilekoa	6,1
2013ko IV. hiruhilekoa	5,7
2014ko IV. hiruhilekoa	22,3
2015eko IV. hiruhilekoa	17,1
2016ko I. hiruhilekoa	7,6
2016ko II. hiruhilekoa	9,4
2016ko III. hiruhilekoa	7,4
2016ko IV. hiruhilekoa	5,1
2017ko I. hiruhilekoa.	6,1
2017ko II. hiruhilekoa	8,0
2017ko III. hiruhilekoa	7,9

Iturria: Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkesta. 2017ko 3. hiruhilekoa Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Eusko Jaurlaritza.



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Higiezinaren Eskaintzari buruzko inkestak ematen duen informazioa etxebizitzak eskaintzen dituzten higiezinaren sustatzaileei eta higiezinaren jabetzako agenteei egindako hainbat galdera-sortatan oinarrituta dago. Agente eta erakunde horiek EAEn dute egoitza. Sustatzaileen taldea aztertu da, eta estatistiketan etxebizitzak eskaintzen dituztenak sartu dira (betiere, bost etxebizitzatik gorako sustapenak baldin badira). Era berean, higiezinaren agenteen laginetik ere informazioa jaso da.

Galdera-sortaren bidez, higiezinaren agente bakoitzeko bil daitezke eskaintza egiteko unean agenteak dituen kuantifikazio- eta kualifikazio-aldagai oinarritutakoak. Higiezinaren sustatzaileei dagokienez, kasu guztietan etxebizitza berriak dira. Beraz, higiezinaren jabetzako agenteen bidez eskuratzen dira, bai etxebizitza berrien datuak (sustatzaileek saldu dituztenak), bai erabilitako etxebizitzak (partikularrek saldutakoak). Hiruhileko galdera-sortaren bidez, eragileek eman dezakete gaur egungo egoerari buruz eta higiezinaren merkatuari buruz duten iritzia.

Adierazi beharra dago etxebizitza-merkatuaren dinamikari eta etxebizitza-merkatuaren perspektibei buruzko ataletan ez dela batezbesteko mugikorren metodoa erabili; izan ere, higiezinaren jabetzako agenteen eta higiezinaren sustatzaileen arduradunen balorazioen emaitza zuzena ezarri da.

2017ko hirugarren hiruhilekoko operazioari dagokionez, berariaz adierazi behar da 177 higiezin-agentziak eta 114 erakunde sustatzailek (5 etxebizitzatik gorako sustapenak izanez gero) osatutako laginetik atera direla datuak. Erakundeak eta agentziak hiruhilekoaren amaieran elkarriketatu ziren. Horren harira, azkenik aipatzeko da higiezin-agentzien kopurua, informazioa biltzeko erabilia, 2011n handitu egin zela.



HIGIEZINEN MERKATUAREN DINAMIKA ETA PERSPEKTIBAK 2017ko 3. hiruhilekoa

Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta.

AURKIBIDEA

1.- ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN DINAMIKA	2
2.- ETXEBIZITZA-MERKATUARI BURUZKO IKUSPEGIAK	9
ALDERDI METODOLOGIKOAK	14
TAULEN AURKIBIDEA	15
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	15

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizeak lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017	3
2. taula. Salmenten bilakaera-indizea, aurreko hiruhilekoarekin erkatuta, lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017	4
3. taula. Higiezinaren jabetzako agenteek etxebizitza saltzeko eragiketa gauzatzeko behar duten batez besteko denboraren bilakaera. 2008-2017	5
4. taula. Higiezinaren merkatuaren dinamikan eragiten duten faktoreak. 2008-2017	8
5. taula. Salmenta-aurreikuspenaren indizearen bilakaera, lurralde historikoaren eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017	10
6. taula. Prezioen bilakaera hurrengo urterako aurreikusteko indizea, lurralde historikoen eta establezimendu motaren arabera. 2004-2017	12
7. taula. Datorren hiruhilekoan etxebizitza-sustapen berrien eskaintzak abiaraziko direlako aurreikuspena. 2008-2017	13

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Etxebizitzaren salmenten eta alokairuen erritmoa, hiruhilekoen arabera 2006-2017	6
---	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefona: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

WEBGUNEAK: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Posta elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus